

Euskal Esnalea

Gure azkenengo zenbakian esan giñutzen itz batzuek euskeraren pizkundera aukeratzeko Donostian bildu zan batzarrearen alde, eta urrengo bilguma Zumarragan egingo zala esanaz, bukatu ginutzen gure illara labur aiek. Gaur, biotza atsegintasunez beteta, esan bear degu egin zala Zumarragako batzarrea, bildu ziralara erri polit artan euskaldun asko, gure izkuntzaren alde bakoitzak alzuena gogoz eskeintzeko. Euskera maite degunantzat tsit alaigarria izan zan Zumarragan Jorraillaren 1-an egin zan billaldia. An ikusi genduen anaitasunak esaten digu garbi, oraingo tšandan euskalzaleen lanak ez dirala alperrik galduko. ¡Ala izan dedilla!

Goizeko amniketan, bosteun euskalzale baño geiago, Euskalerra guztitik etorriak, agertzen ziran errikoechean. An ikusi giñutzen beste euskaldun otsaretsu askoren artean jaun abek: Kanpion (Arturo), Orkaiztegi (Patrizio), Zabala (alfonso M^a), Urkijo (Julio), Eleizalde (Koldobika), Zabala (Kasildo), Lafitte (Alfredo), Agirre (Domingo), Belaustegi (Juan José eta Ignazio), Maruri (Jose M^a), Landeta (Eduardo), Garteiz (Martin), Mujika (Serapio), Jauregi (Jose Ramón), Eñsegaray (Karmelo), Mendia (José M^a), Lopez Mendizabal (Isaak), Aranzandi (Estanislao), Aranzadi (Engrazio), Eizagirre (José), Kastañeda (Jose Joakin), Larreta (Juan), Loyarte (Adrian), Gerra (Juan Karlos), Ozamiz (Balentin), Lasa (Enrike), Lacombe (Georges) eta beste asko.

Bai ta ere izan ziran *Heraldo Alavés*, *Aberri*, *Eco de Navarra*, *Pueblo Vasco*, *Jel*, *Gaceta del Norte*, *Correo de Guipuzcoa*, *Euskalduna* eta gure REVISTA INTERNACIONAL-en aurkeztariak.

Telegramak eta butunak ugari iritši ziran, eta fsalo aundiakin artuak izan ziran; ikustekoa zan toki artan agertzen zan euskaltasuna.

Dianagusiak itz batzuek esan ondoren, altša zan Aranzadiko Estanislao, Iruñakoa, eta egin zuen itzaldi eder bat. Esan zuen, Euskaldun guztiok biltzea eta alkar laguntzea dala lenengo egin bear degun gauza, euskera galtzea nai ezbadegu, eta itz bat nola edo ala iratzi beardan erabakitzeko (jerahakitzeko baldin balitz!) egunak alperrik galdu gabe galtzen ditugun bezela, egin bear deguna dala mintzatu eta irakurgaitu etšean eta kalean, toki guztietan. Euskaldunak-esaten zuen-gera lotsa-

tiak, lotsatu egiten gera euskeraz itzegiten eta ori galerazi egin bearda. Denari euskeraren alde lana gogor egiteko eskatuaz, bukatu zuen Aranzadi jaunak bere itzaldi argitsua.

Itzezin zuen gero Tolosako Lopezek, euskerazko liburuak anfsiñeko eran irakurgaitzeko eskatuaz, orrela jendeak obeto ulertzen dituela eta geiago irakurriko dituela uste duelako.

Etsegaraiko Karmelo mintzatu zan, batzarrearen izenean «*Pueblo Vasco*»-ri eta euskeraren alde irakurgaitzen dutenari eskerrak emateko.

Larreta jaunak oroimen bat eskiñi zion Iruñako Apezpikuari, batzarreari donkitu zion itz atsegingarrietatik; eta apaizak agindu zuten euskerarengatik al zuten guztia egitea.

Beste jaun askok ere itzezin zuten, denak laguntasuna eskiñiaz eta eskatuaz.

Batzarrearen erabakiz bilguma *Euskal Esnalea* izendatuko da, eta izango dira agintari edo buru, jaun abek: Kampion (Arturo), Orkaiztegi (Patrizio), Urkijo (Julio), Larreta (Joakin), Eízagirre (José), Etsegarai (Karmelo), Eleizalde (Koldobika), Zabala (Kasildo), Zabala (Alfoixo M^a), Laffitte (Alfredo), Lopez Mendizabal (Isaak) eta Alzaga (Toribio).

M. Georges Lacombe izango da Franzian *Euskal Esnalearen* aurkez-taria.

Ordu bata aldera Kampion jaunak eskerrak eman ziozkan batzarreari, eta eskatu zion laguntasuna, aurreragoko lanak beardan bezela gankiratzeko. Eta *Gora Euskera maitagarria* deituaz, atera ziran egiazko euskaldun aiek errikoehetik.



Bi itz gure aldetik. Gure iritziz *Euskal Esnalea*-ko lagunak lenengo egin bear deguna da, alkarren artean euskeraz mintzatu eta irakurgaitu. Alperrik izango da euskerazko liburuak argitaratzera, alperrik izango da batzarretan bilduta euskeraren alde itzaldiak egitea, bakoitzak bakartasunean al duena egiten ez badu. *Euskal Esnalea*-koak ez dute billaldietan bakarrik oroitu bear, baizik baita ere bakartasunean eta beti, euskeraren alde lana egiteko beartuak daudela. Euskeraz dakigun *Euskal Esnalea*-ko lagunak, ez degu euskera baizik mintza bear eta iratzi bear alkarren artean. ¿Gaizki egiten degula? Ikasiko degu ondo egiten. Ondo egiten, ez da egingabe ikasten; gaizki egiten asita, bai.

Mintza zakun eta irakurgaitu zakun, bada, euskeraz alkarren artean. Ori da bear degun tokira iritbitzeko bidea, eta bide au jarraitzeko bildu gera. Zailltasunak ez ikusteko, begiak itši, eta aurrera. *Gora euskera maitagarria*.